

Kontsumoa



M A H A I - I N G U R U A

■ Andoni Eizagirre

■ Antton Pérez de Calleja

■ Lucio Tabar

IRITZIAK

• Annie Leonard


• Nicolas Ridoux

Eredu ekonomikoari bira eman ahal zaio?

Bizi dugun krisi ekonomikoak zerbaiterako balio izan badu, izan da dugun eredu ekonomikoa birplanteatzeko —edo behintzat ezbaian jartzeko—. Kapitalismo basatian oinarritua, kontsumoa da gizartearen motorra, kateari lotura ematen diona, produktibismoa sustengatzen duena. Eta lezioa ondo ikasia daukagu, erritmo frenetikoan kontsumitzen baitugu. Baina noiz arte mantendu ahal izango dugu eredu hau, jakinik baliabide naturalak akitzen ari garela, planeta mugatua dela eta dugun ereduaren produkzio/kontsumo gosea amaiezina? Ertzearen edo deshazkundearen aldekoek alarmak piztu dituzte, eta daramagun kontsumo maila gelditu behar dela ohartarazi dute. Baina lehenago edo geroago eztanda egingo duela dirudien ereduari nola eman buelta? Eta gu, kontsumitzaile izaera hain barneratua dugunok, zein neurritan gaude prest?


■ Mikel Garcia

Mahai-inguruko argazkiak: Dani Blanco





Lucio Tabar, Andoni Eizagirre eta Antton Pérez de Calleja, mahai-ingurua hasi aurretik.



Hain zuzen, kontsumoak sistema lineal bati erantzuten dio (baliabide naturalak ustiatu, ekoiztu, banatu, kontsumitu, bota), baina planetak mugatua da. Ereduak eztanda egin dezake?

A. PÉREZ DE CALLEJA. Ez dago joera linealik. Interpretazio subjektiboa da, baina historiak berak eta garapen ekonomikoak hazkuntza eta haustura bidez funtzionatzen dute. Hots, aldian-aldian gertatzen diren aldaketa kualitatiboak daude. Ez da berdina XIX. mendeko ekonomia, ikatzean oinarritua, baporean, trenetan, itsasontzietan... edo XX. mendeko ekonomia, edo XXI.ekoa. Beraz, gauza nahiko desberdinak ari gara kontsumitzen. Gogoratu XIX. mendean Europak garaturiko kolonizazioa, lehengaiak bilatzen, elikagaiak (kakaoa eta abar). Gaur egun ez da kolonizazio hori ematen lehengaiak beste era batera lor daitezkeelako, edo kontsumo ohiturak aldatu egin direlako. Historian beti eztabaida izango da pentsatzen dutenen artean batetik ez dagoela ezer berririk, eskema bera erre-

pikatzen dela beti, eta bestetik historia beti ari dela aldatzen. Argi dagoena da gizakiek gaitasun plastikoa handia dutela euren egoera aldatzeko, baldintzek horretara behartzen dituztenean. Hori bai, aurretik euren burua konbentzitu behar dute ez dagoela beste erremediorik. Arlo energetikoa horren adibide da: gizartearengatik eta gizarteko politikariengatik balitz, ekonomiak jarraituko luke energia mugagabeki kontsumitzen, begira zenbat kostatu den sinestea aldaketa klimatikoa ematen ari dela. Ikuspegi horretatik, gizartea beti muturrera doa, garapen ekonomikoaren muturrekin talka egiten duen arte, baina kontrakoaz konbentzitzen bada... Sentsibiltate berri bat dago aldaketa klimatikoarekiko eta kontsumo jasangarriarekiko eta zentzu horretan eboluzionatuko du gizarteak. Eta ekonomialari gisa beste alderdi bat azpimarratuko nuke: galdetu izan didatenean, “zeintzuk dira energia aurrezteko modu onenak?”, nik beti erantzun dut: “Prezioak”. Ez konbentzimendua, ez mentalizazioa... Zuk energia garestitu, eta ikusiko duzu


nola kontsumo ohiturak aldatuko diren. Baina horretarako iritsi behar gara petrolio-upela 300 edo 400 dolarretan egotera. Zentzu horretan, petrolio bukaturko al den galdetuta norbaitek erantzun zuen inoiz ez dela amaituko, hain-hain garesti jarriko da ezingo baita prezio horietan kontsumitzen jarraitu eta geratuko den apurra zeregin nobleagoetara edo balio erantsi handiagoetara bideratuko da; produktu plastikoak, etxeak... egiteko, baina ez erretzeko. Ekonomia prezioen bidez aldatzen da.


L. TABAR. Nik ikusten dudana da gainditu egin ditugula planetaren mugak, Andonik zioen moduan, eta zientifikoki baieztatuta dago, dirudie-nez. Antton, ni ez naiz hain baikorra uste dudalako bi aukera daudela: bat zuk diozuna, krisien bidez (guk uste dugu geroz eta gogorragoak eta sarriagoak izango direla) aldaketa positiborantz egingo dugula. Eta bestea, geroz eta aberats gutxiago egonen dela, baina aberatsagoak, eta geroz eta pobre gehiago, pobreagoak. Hori ari da munduan gerta-

tzen azken urteotan: planetako aberatsenen %20a geroz eta aberatsagoa da, munduko aberastasunen %80a izateraino, eta biztanleen %80a gainontzeko %20arekin bizi da. Hau ez zen gertatzen duela 20-25 urte. Zein aldetara egingen duen gizarteak? Denen artean egiteko gai garenak zeresan handia izanen du horretan. Muga ekologikoak planteatzera, ahalmena aipatzen genuen: ezinezkoa da garapen ekonomikoaren erritmoa maila hauetan mantentzea; baina gu saiatzen gara alde soziala ere kontuan hartzen: daramagun erritmoa mantendu ahaliko balitz ere (zeren bada jendea dioena aurrerapen teknikoek-eta ahalbidetuko dutela), desiragarria litzateke? Bidezkoa da sozialki? Garapen ekonomikoaren eredu hau (gaur egun ezagutzen dugun bakarra), aberastasunaren banaketan, geroz eta pertsona gehiagorentzako bizimodu duina lortzeko garaian... positiboa ala negatiboa da? Guri negatiboa iruditzen zaigu.

A. EIZAGIRRE. Badirudi ekonomiaren arloan kezka berri bat garatzen ari dela azterketa fisikoari lotuta, ulertuz ekonomia sistema ireki moduan, irekia energia eta materialak sartzera, eta irekia hondakinak ateratzera. Zentzu horretan, baieztatzen da materia eta energia fluxuei lotuta ekonomia industrial lineala dela, baliabideak deskonektatuta gertatzen direlako hondakinekiko eta beraz zikloak ez dira ixten. Proposatu beharrekoa ikuspegi aldaketa bat da: ez hainbeste galdetzea nola hornitu baliabide naturalez, baizik galdetzea muga biosferikoei buruz eta nola egokitu gizaki-sistemak muga horietara. Adibide erraz bat: fosilaren ondorengo eredua ere gerta liteke alternatiba zikina izatea. Horrek garamatza ekonomiatzat duguna birpentsatzera, eta eztabaida zabaltzera desiragarri litzatekeenera eta arlo sozialera. Energia primarioen kontsumoa murriztea eta automugatzea dira hain zuzen ere inork gutxik aipatzen dituen printzipio eragileak. Guztiarekin, desiragarria zer den kontuan hartu gabe ere, planetak berak mugak jartzen dizkizu eta beraz derrigorrezkoa da aldaketa.


Orduan gutxiago kontsumitzera behartuta ikusiko dugu gure burua, ala Pérez de Calleja, zuk diozun moduan, ekonomia oso plastikoa da eta beste era bateko kontsumoak bilatuko ditugu, ez hain lotuak baliabide naturaletara?





















langabeziarekin, geroz eta soldata eta lan-egonkortasun txikiagoarekin, gutxitutako gizarte zerbitzuak, botere finantzario ahaltsuak eta beren langileen esplotazioa muturrera eramaten duten enpresak, ez al da zinikoa horri suspertze deitzea? Geure buruari galdetu beharko genioke krisitik ateratzeak ekarriko duen kapitalismo eredua hori izango al den: enpresa eta erakunde finantzario oligopoliko globalen eredua, ezinbestean diru publikoak sostengatua eta euren mende makina bat enpresa-satelite dituen, non soilik elite ekonomiko eta politikoek izan ahalko duten bizi-maila egoki bat. Demokratikotik geroz eta gutxiago duten gizarteak, ustelkeriaren esku, errepresiora jotzeko geroz eta behar handiagoarekin, eta herri-tarren eta ingurumenaren arazoei mespretxu erabatekoarekin. Suspertzeak, ematen bada, gizarte are latzagoetara eramango gaitu: kapitalismo korporatibo eta instituzional baterantz goaz. Argi dirudi kapitalari irteera emateko estrategiak eragingo duena izango dela elitean ez dauden klaseen bizi-baldintzak okertzea. Zein aterako da orduan krisitik?”. Eta hori dio ekonomiaz dakien norbaitek. Beldur horrek bultzatu gintuen deshazkundearen aldeko gure elkartea eratzea eta bide horretan gure harri-koskorra ekartzera. Norabide honetan jarraitzen badugu, krisi ekonomikoak geroz eta gogorragoak izanen direla ikusten dugu, geroz eta jende gehiagori eraginen diola, gugandik geroz eta gertuago. Beraz, kontua ez da energia-iturria aldatzea, gutxiago kutsatzea, produktua petrolio gutxiagorekin ekoiztea... Edo gizartea sustengatzen duten balioak aldatzen ditugu, edo oso zail izango dugu. Kolapso ekologikoa iritsiko da? Munduan gose direnak etorriko dira eta jan egingen gaituzte? Auskalo, baina gure gizartea geroz eta gizarte kontrolatuago eta zurrunago bilakatuko da, norabiderik gabeko klase ertain batekin. Lehenengo belaunaldia gara, ziurtatu ezin duena maila ekonomikoan gure seme-alabak gu baino hobeto biziko direnik.

A. PÉREZ DE CALLEJA. Nik esango nuke ziurtatu dezakegula gure seme-alabak gu baino okerrago biziko direla. Baina gu oso ondo bizi izan garelako. Dena den, irakurri duzun testua oso partziala iruditzen zait, eta fariseikoa, Miren Etxezarreta fun-

“**I**kuskera batek, jarrera batek, balioen hierarkia bat esan nahi du, ideia batzuek besteen gainetik lehentasuna dutela, eta zentzu horretan lehentasunen patroia mantendu egin da. Azken hamarkadetan, ez da kultur aldaketarik egon, ez da egon aldaketarik balioen hierarkian”

ANDONI EIZAGIRRE

tzionarioa delako eta krisiarekin batere sufritu ez duen sektorerik baldin badago, hori funtzionario publikoena delako [Espainiako Gobernuak funtzionarioei soldata murriztea erabaki aurretik egin genuen mahai-ingurua].

L. TABAR. Ezta aberatsek ere. Aberatsen diru-sarrerak %29 igo dira 2009an. Nafarroako Emaus-eko Traperoetan ikusten dugu zeini eragin dion krisiak, gu bizi garelako gizarteak botatzen duenetik, Nafarroako gizarteak botatzen duenetik, eta ekarri dizkiguten produktu kopurua mantendu egin da. Are gehiago, iazko uztailen 10.000 telebista jaso genituen, gehienak egoera ezin hobean, Nafarroako Gobernuak 60 euroko diru-laguntza ematen zuelako plasmako telebista erosteagatik. Aurreztu beharrean, kontrakoa ikusi dugu, telebistak “premia biziko ondasun” izanik! Telebista zahar horiei LTDa jartzearekin aski zen funtzionatzen jarraitzeko, baina plasmako telebista sustatu du Nafarroako Gobernuak; politika sozial paregabea, inondik inora.

Orduan, dirudienez kontsumo eredua aldatzeko benetan egon beharko lukeena balio eta pentsamolde aldaketa da. Jendea prest dago pentsamolde hori aldatzeko?

A. EIZAGIRRE. Iritzi inkesten arabera, ingurumenaren babesa balio positibo eta desiragarria da. Jendeak dio ingurumenaren hondamendia arazo larria dela. Baina iritzi inkestek arrisku metodologikoa dute, gizarteak berak ontzat ematen duena onartzen baitu jendeak erantzun ontzat eta desiragarritzat, eta galderak ere erantzuna baldintzatzen du. Ingurumenak merezi duen balio soziala ukatu gabe, nekez esan genezake aldaketa kultural bat gertatzen ari denik. Izan ere, ikuskera batek, jarra batek, balioen hierarkia bat esan nahi du, ideia batzuek besteen gainetik lehentasuna dutela, eta zentzu horretan lehentasunen patroia mantendu egin da. Irakurketa maltzur bat ere indarra hartzen ari da. Horren arabera, guztia bateragarria izan liteke, sinetsi nahi da ekonomia eta ingurumena osagarriak ez ezik elkarmenpekoak direla. Esan ditudan anbiguotasun hauek samur ikus litezke jokaerei eta ekintzei buruzko iritzi sozialetan. Gauza bat da ingurumenaren kaltetzeaz duzun iritzia galdetzea, eta beste bat ea ingurumenaren alde zer egiten duzun galdetzea. Eta hain justu, iritzi inkesta zorrotzagoek erakusten dute kontraesan argia dagoela jokaeren eta ekintzen artean. Azken hamarkadetan, ez da kultur aldaketarik egon, ez da egon aldaketarik balioen hierarkian.

A. PÉREZ DE CALLEJA. Nire ustez, aldaketak kanpotik inposatu behar dira, barrutik ez direlako garatzen. Ingurumenaren kasuan, energia berriztagarrien bultzada kanpotik etorri da, ez borondatetik.

A. EIZAGIRRE. Berriro ere inkestei helduz, jendea prest agertzen denean ingurumenaren aldeko ekintzak garatzeko, modu pasiboan izan ohi da. Esaterako, birziklatzea, ur kontsumoa murriztea eta energia aurrezte. Gogoan izan behar dugu gainera horretarako sarri pizgarriak ematen direla. Baina ez da halakorik gertatzen kontsumo ohiturak aldatzera behartzen gaituzten ekintza aktiboagoekin.

A. PÉREZ DE CALLEJA. Bai. Kontsumitzailearen indizeak esaterako (kontsumitzailearen konfiantza neurtzen duena), duela sei-zazpi hilabetetik hobera egin du, baina kontsumoa ez da igo. Jokaera aldatu da, baina ekintza ez. Zein neurritan gaude soldata sakrifikatzeko prest, enpleguari laguntzeko? Alema-

“**P**ertsonak dualak direla uste dut nik, baina ekintza sozialen estimulu guztiek indartzen dutenean behin eta berriz balio ezkorren alde, edo beste esparru batzuk aurkitzen dituzu estimulu baikorrak indartzeko, edo bide hori jarraituko duzu”

LUCIO TABAR

nian normala izango litzateke enpresako jendea ez botatzearren lan taldea prest egotea euren soldatak jaisteko; hemen ez da inoiz egin halakorik.

L. TABAR. Enplegu Erregulazio Espedientea aurkeztu zuen Nafarroako enpresa batean, langileek erabaki zuten soldata jaitea jendea ez botatzeko, nahiz eta enpresak ez zuen onartu eta Nafarroako Gobernuak enpresak planteaturiko EEEda onartu zuen azkenean.

A. PÉREZ DE CALLEJA. Hori oso arraroa da ba; 2009an, historiako langabezi tasa altuenarekin, soldatak %4 baino gehiago igo ziren. Jendea prest dago aldatzeko, baina ezer kostatzen ez bazaio.


L. TABAR. Baina adibidez, irakaskuntza publikoko sindikatuek lortu zuten irakasleek soldataren %80a kobratu ahal izatea bost urtetan, bosgarren urtea sabatiko hartuz. Hasieran oso jende gutxi eman zuen izena, eta gaur egun eskaera dezente gehiago daude. Nik uste badagoela kontuan hartzeko moduko jende kopuru bat, prest egonen litzatekeena bere soldata murrizteko, denboraren truke.

Eta hala ere, plasmako telebista erosteko zaharra saldu zizueten askok eta askok. Hiperkontsumismoa barruan al daramagu?

A. PÉREZ DE CALLEJA. Beste mahai-inguru oso baterako gaia dugu hor: publizitatea. Publizitatea da gizartearen sozializazio elementu nagusia eta horren kontra ez dago defentsarik. Gabonetan plasmako telebista opari izarra bilakatzen bada, hori erosiko da gehien, eta Play Station-a bada, beste hainbeste. Dena aurretik eramaten du publizitateak. Hurrekin ikusten da oso argi, gizarteko sektore ahulenarekin, nola gauzak eskatzen dituzten etengabe. Gizakiak berezkoa du gauzez jabetzeko grina, gauzak izan nahi ditu beti eta orduan, gauzak beharrean zoriontasuna eskaintzen duen propagandaren esku dago erabat.

L. TABAR. Egiaz, zein izen merezi du, haurretatik hasiz jendea modu horretan manipulatzeko uzten duen gurea gisako gizarte batek? Bitxikeria bat: duela urte asko, lankide ohi bat saiatu zen Pepsi-Colak parte har zezan euskararen aldeko kanpaina batean. Helduentzako irakaskuntzan egiten genuen lan, eta Pepsi-Colak erantzun zion umeei izan balitz baietz, 7 urtetik beherakoentzat pentsaturiko publizitatea egiten dutela, adin horretarako haurrak jada erabaki duelako Pepsi-Cola edo Coca-Cola nahiago duen. Benetan pentsatzen duzue normala dela gizarte batek hau onartzea? Eta publizitateari erantsi behar diogu kreditua, kredituak ahalbidetzen digulako duguna baino gehiago gastatzea, eta gainera ahulenez aprobetxatzen da, euren buruaren kontrol gaitasun gutxien dutenez.

A. PÉREZ DE CALLEJA. Banketxe bateko laguna harritu egiten da jendea nola datorkion kreditu eske Seychelleetara oporretara joateko, ziurrenik lagunen bat Maldivetara joan delako lehenago. Ezin dugu ahaztu bazegoela sozialismoa izeneko sistema bat, sinesmen positiboetan oinarritua: solidaritatea, norbanakoaren sakrifizioa gizartearen mesedetan, eta halakoak. Bada, izugarritzko porrota jasan zuen, balio ezkorretan oinarritua dagoen kapitalismoaren alde: diru-gosea, lukurreria, jabetza... Biblia eta gizateriaren historia irakurtzen badugu, oinarria beti izan da asko nahia, diru-



gosea, itxurakeria, gauzak edukitzea. Kapitalismoak ez du ezer asmatu, esplotatu eta erabili egin du.

Orduan, berezkoa du gizakiak gauzez jabetzeko grina, ala publizitatearen menpe gaude?

A. PÉREZ DE CALLEJA. Barruan daramagula uste dut nik.

L. TABAR. Gure kontsumo gizartetik at mantendu diren tribu urriek ez dute grina hori.

A. PÉREZ DE CALLEJA. Besteak beste ez dutelako alternatiba askorik...

L. TABAR. Kontatzen denez, ebanjelista estatubatuar batzuk tribu batera joan eta matxeteak eman zizkieten, zuhaitzak moztu ahal izateko. Handik denbora batera bueltatu zirenean, galdetu zieten:



“Zer moduz matxeteekin?”, “primeran, hamar aldiz azkarrago moztan dugu”, “orduan hamar aldiz gehiago moztuko duzue...”, “ez, hamar aldiz azkarrago moztu eta hamar aldiz gutxiago egiten dugu lan”. Hemen kontrakoa da filosofia.

A. PÉREZ DE CALLEJA. Baina ez zuten hamar aldiz gehiago lan egiten, lortuko zutena ezin zutelako ezerekin trukatu. Produktibitatea hazteak ez zuen zentzurik kasu horretan. Hemen ordea, ordu estrak egingo ditu jendeak, pisua duelako ordaintzeko, eta autoa, eta oporrak... Enpresariak ezagutzen ditut langile kualifikatuak animatzen dituztenak etxea eroatera edo ezkontzera, enpresara lotzeko.

L. TABAR. Oso planteamendu psikologikoetan sartzen ari gara. Pertsonak dualak direla uste dut nik: berekoiak gara eta solidarioak, zekenak eta altruistak, gurea dena defendatzeko gertu eta beste zerbaiten alde sakrifikatzeko prest. Baina ekintza sozialen estimulu guztiek indartzen dutenean behin eta berriz balio ezkorren alde hori, edo beste esparru eta beste estimulu batzuk aurkitzen dituzu estimulu baikorrak indartzeko, edo bide

hori jarraituko duzu. Familian eta lagun giroan adibidez ez dugulako berdin jokatzeko, harremanak desberdinak dira. Sistemak aldiz, bide ezkorra markatzen digu eta sarri inkontzienteki hori hartzen dugu, naturala hori dela iruditzen zaigulako, egin behar dena. Zer gertatuko litzateke estimuluek beste aldea indartuko balute?

A. EIZAGIRRE. Baina, zer estimulatu dute iragarkiek? Balio ezkorrak? Marko bukatugabeak dira iragarkiak, aldaketa estimulatu dute, autonomia, etorkizunean egiteke dauden gizakiaren gaitasun guztiak. Analisi marxistak esango luke iragarkiek alienatuta gaudela, baina nire ustez iragarkien bertutea hain zuzen da aldaketarako estimulatu gaituztela, iragarkiek guztiz ixten ez duten hori gure autonomiatik lortzeko aukera. Zergatik erosten dugu auto bat eta ez bestea? Zerk motibatzen gaitu? Ez preseski autoaren prestazioek.

A. PÉREZ DE CALLEJA. Askatasuna, estatusa, zoriontasuna... saltzen du publizitateak, 1.500 kiloko burdin puska bat eta gasolina pila bat kontsumitzen duen tramankulua eros dezazun. Gizarte-psikologo onenek publizitatean egiten dute lan.

L. TABAR. Desira horiek kontsumoarekin lotzen ditugu azkenean.

A. PÉREZ DE CALLEJA. Psikologoek aurkitu dute erosteak endorfinak sortzen dituela. Gaixotasun bat dago, behar ez dituen gauzak erosten dituen jendea.

L. TABAR. Nik uste behar ez duzuna erostearena ez dela soilik gaixotasuna. Guk bigarren eskuko arropa asko eta asko jasotzen dugu, eta horietako dezentek etiketa dute oraindik. Erabili gabe daude, alegia.

A. EIZAGIRRE. Autokontsumitzen den pasioa. Gure arazoa ez da nahi dugun hura ez lortzea, nahi duguna lortzea baizik, izan ere, berehala ohartzen gara kontsumitzen dugunak gure desioak ez dituela asetzen. Goratzen diren bertuteak ez dira objektu baten erabilgarritasuna eta posesioa, maila subjektiboan eragiten duten balioak dira barneratzen

zaizkigunak, eta dibortzio horretan dago desiraren zoriontasuna eta lorpenaren atsekabea. Kuriosoa da bestalde ikustea atsekabearen merkatuak duen garrantzia. Eta gogora dezagun, horiek ere badira hazkunde ekonomikoaren motorra.

A. PÉREZ DE CALLEJA. Azken finean, kanpoko estimuluei erantzuten dien izakia gara.

L. TABAR. Kanpo-estimuluetatik harago, nork bere burua ezagutzeko eta kontsumo maila zentzuzkoagoa duten gizarte esparruak sortzeko ahalgina egin daiteke, ohartzeko aukera hori praktikan hobea dela, merezi duten beste elementu batzuk lortzen dituzulako: gizarte harremanak, denbora libre, bizi kalitatea... Kontsumitzaileak baino zoriontsuago egingen zaituzte.

A. PÉREZ DE CALLEJA. 1960-70eko hamarkadetan eman zen eztabaida hori. Egunean bi ordu lan egin ez bizitzea, adibidez, eta AEBetan jende askok urtean hilabete batez edo bitan baino ez zuen lan egiten. Baina hain da handia politikoki zuzena denaren pisua, hortik kanpo aritzeak pertsona marjinal bihurtzen zaituela eta jendeari ez zaio gustatzen marjinal izatea. Egunean bi ordu lan egin nahi dituzula? Inork ez zaitu kontrakora derrigor-




tzen, baina faktore asko daude jokoan. Eboluzionatu beharko genuke behar gutxiago izaterantz, baina alderantziz izan da, geroz eta behar gehiago ditugu. Duela 40 urte egin zen ordutegien murriztea (40 ordu astean), eta ordutik ez da gehiago murriztu, ez dugu ezer aurreratu!

Bukatzeko, adierazi duzue publizitatearen menpe gaudela kontsumitzaileak. Baina era berean, enpresek eta ekonomiak kontsumitzailea badute jomuga, zein botere erreal dauka kontsumitzaileak, zein neurritan daude kontsumitzailearen menpe?


L. TABAR. Pertsona bati "kontsumitzaile" deitzea gero! Kontsumitzaileaz, pertsona kontsumitzaileaz ari garenean zertaz ari garen jakitea jada larria da. Kontsumitzaileak, indibiduak, ez du inongo boteririk. Gehienez, kontzientzia maila bat baldin badauka, sistemaren zirrikituak probestuko ditu eredu horren eragina mugatzeko, baina bakarrik ez du inongo boteririk ekoizten denaren gainean, nola ekoizten den, zertarako, zein kosterekin... Beste gauza bat da pertsona gisa, eta pertsona sozial gisa, bizimodu desberdina planteatzen badu, horren baitan kontsumoa aintzat hartuz. Hor bai irekitzen da aukera bat, batetik hobeto bizitzen ikasteko, eta bestetik gizartean eragiteko eta errealitatea aldatzen saiatzeko. Baina ez kontsumitzaile gisa. ■

Gurpil zorua



Ondasun eta zerbitzuen bizi-zikloaz dokumental interesgarria egin du Annie Leonard-ek. Leonard aditua da besteak beste nazioarteko merkataritzan eta garapen jasangarrian, baina gehienbat *The Story of Stuff* (<http://ttiki.com/14529>) lanagatik egin da ezagun.

Gure ekonomia ereduaren menpe, gauzek duten ibilbidea, ekoizten ditugunetik botatzen ditugun arte, azaltzen du dokumentalean, oso modu argigarrian. Hona laburpena:



keenaren bila, bertakoei lapurtuz-, kutsatzen duten fabrikak...

Kontsumitu. Katearen harribitxia, motorra. Hain garrantzitsua, berau babestea bihurtu dela ustiapenaren eta ekoizpenaren lehentasuna. Irailaren 11ko atentatuen ostean, Bushen herritarrei helarazi zien mezua izan zen erosteko, kontsumitzeko. Ez gara ama, irakasle edo nekazari, kontsumitzaile baizik. Gure nortasuna kontsumitzaile izaerak osatzen du, kontsumo mailak neurtzen gaitu pertsona moduan, sistemari egiten diogun ekarpena zenbaterainokoa den. Eta kontsumitzen dugu, bai jauna, eta nola! Eta zein erritmotan! Produktuen mugimendua oso bizirik mantentzen dugu. AEBetan, kontsumitzen diren produktuen %1ak baino ez du erabilgarri jarraitzen handik sei hilabetera. Beste era batera esanda: landatzen, arrantzatzen, ustiatzen, ekoizten, transformatzen... ditugun gauzen %99a zakarra da handik sei hilabetera. Nola mantendu planeta, prozesamendu erritmo horrekin?

AEBetako pertsona batek duela 50 urte kontsumitzen zuenaren bikoitza kontsumitzen du egun. Baina nola eman da halako aldaketa, lehen aprobe-txamendua edota natur baliabideekiko errespetua nagusi bazen? Hain aldaketa handia berez ematea ezinezkoa da, diseinaturiko aldaketa izan da. Bigarren Mundu Gerraren ostean, korporazioek galdetu zioten euren buruari, "nola altxatu gure ekonomia? Bada, gure ekonomia ikaragarri produzitzailea denez, kontsumoak behar du izan erantzuna, erosketa eta ondasunen erabilera ohitura bihurtzea, gure gogobetetzea kontsumoan bilatzea: kontsumitu, bota eta ordezkatu egin behar dugu erritmo bizian". Eta Eisenhower AEBetako presidenteak berak esan zuen ondasun gehiago produzitzea behar zuela izan herrialdeko ekonomiaren lehentasuna.

Nola erori garen joko horretan? Bi bide nagusi daude. Batetik, programatutako zaharkitzapena deritzona: erabili eta botatzeko moduan eginak daude gauzak, lehenbailehen balioa gal dezaten, beste bat erosteko. Ordenagailua adibidez, teknologia etengabe aldatzen dela ikusten dugu, baina urtero aldatzen den gauza bakarra ordenagailuko pieza txiki bat baino ez da. Kontua da ezin dela pieza bakarrik aldatu, diseinua egokitzen dute eta ordenagailu osoa erosi behar da atzera. 1950eko hamarka-

dako aldizkarietan, artikuluak idazten zituzten erakutsiz nola fabrikatu balioa azkar galduko zuen produktua, baina era berean jendea pozik eta prest utziko zuena berriz ere produktu berdina erosteko.

Bestetik, gauzak ez direnez iraungitzen kontsumituarazi nahi den bezain erritmo azkarrean, hauek mandako zaharkitzapenarekin jokaten da. Hots, oraindik erabilgarri dauden gauzak botatzeko kontsumitzen gaituzte, produktuen itxura eta diseinua aldatuz. Jendea neurtzen denez kontsumismoari egiten dion ekarpenaren arabera, besteak konturatu daitezke duela bi urteko zerbaitek dugula eta lotsagarria denez berria erosi dugu. Moda, publizitatea eta hedabideak oro har elementu funtsezkoak dira zeregin honetan.

Geroz eta gehiago kontsumitzen da AEBetan (baita gurean ere), baina zoriontasun inkestek behe- ra egin dute, hain juxtu 1950eko hamarkadaz geroztik. Geroz eta gauza gehiago ditugu, baina benetan zoriontsu egiten gaituenarentzat geroz eta denbora gutxiago. Analista batzuen arabera, garai feudaletan baino lan gehiago egiten dugu. Eta dugun denbora libre eskasean, bi jardura dira jaun eta jabe: telebista ikustea eta erostea. Lanera goaz, gero etxera telebista ikustera –eta telebistak esaten digu erosteko–, erosi egiten dugu eta berriz lanera erosketetan xahutuko dugun dirua lortzeko. Haatik, lan egin, begiratu, gastatu gurrupiletik atera gaituzke, gelditzea- rekin bakarrik.

Bota. Hainbeste kontsumitzearen ondorioz, ez zaizki- gu etxean sartzen, soberan ditugu, eta zakarretara doaz. Jakinak dira zaborrak berekin dakartzan arazo- ak eta birziklapena ona da, noski, baina ez nahikoa. Batetik, gure etxetik zakarretara doana izebergaren gaina baino ez delako –askoz handiagoa da ekoizte- ko prozesuan sortu den zaborra–; eta bestetik, gauza batzuk ezin direlako birziklatu, toxiko gehiegi baitu- tuzte edo birziklaezin diseinatu baitituzte hasieratik.

Kontsumitu eta botatzearen kultura baztertu behar da, kimika ekologikoa, zero zabor, produkzio ziklo itxiak eta energia berriztagarriak gisako ekimenekin. Aztertutako eredia irreal eta jasangaitza da, eta batez ere, ez da aldatu ezin daitekeen zerbaite, guk, pertsonok sortua eta guk, pertsonok eman diezaio- kegu buelta.



Atzeraldian sartu garela ulertu behar dugu, baina ez dela deshazkundean dagoen gizartea. Alegia, ez dugu ezertxo ere aldatu gure gizarte antolakuntzan, non banaketaz arduratzen diren erakunde eta mekanismo guztiak hazkunde ereduaz elikatzen diren. Ezaugarri hauek dituen gizarte batean, hazkuntza falta denean, egoera dramatiko da, ezinbestean.

Deshazkundea gauza guztiz desberdina da. Gizatasunean haztea bezala da, hots, giza-kion bizitza aberatsa osatzen duten dimensio guztiak kontuan hartzea.

Deshazkundea ez da hazkunde negatiboa, atzeraldia edo depresioa; tontakeria litzateke gaur egungo sistema alderantziz hartu eta gainditzen saiatzea. Deshazkundea da hazkundearekiko dugun menpekotasunetik desohitzea, gizakiaren eta gizartearen garapenetik hain urrun dagoen ideologia produktibista honetatik deskolonizatzea. Suntsitzaile bilakatu den logika kapitalistatik harago joaten saiatzea.

(...)

Hazkundea aurrerapen den ideiarekin, bidezko garapenaren ezaugarri funtsezko den ideiarekin amaitu behar da.

Bertute guztiekin apaintzen da hazkundea, enpleguaren arloan adibidez. Baina zer dio Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE)? “Hazkunde indar-

tsuko hamar urtek miserian bizi diren langile eta familia gutxi batzuegan baino ez dute eragin, eta herrialde gutxi batzuetan baino ez. Langabezia murrizteko ere ez du balio izan”, idatzi du LANEko zuzendari nagusi Juan Somaviak, 2007ko urtarrileko txostenean. Enpresa-etekinek hazkunde handia jasan arren, ezin izan dute lanik sortu. (...) Hainbestetan argudiatutako hazkundea, lan sortzaile litzateke orduan, gaur egun esan ohi zaigun moduan? Hori ez da langabetuen iritzia, eta bereziki gazteena, asko lanik gabe baitaude hazkunde iraunkorra bizi duen eta geroz eta aberatsagoa den mundu batean. (...) Hala, okerra da pentsatzea mundu guztiak lana izan dezan egin behar dena dela hazkunde ekonomikoa berrezarri eta ekoizturiko kantitateak geroz eta gehiago handitu; gainproduktzio horrek ez du inolako zentzurik, eta gainera, gizakiok planetan bizirauteko baldintzak arriskuan jartzen ditu larriki.

(...)



DANI BLANCO

(...)

Famatu egin da garapen jasangarri kontzeptua –utopia horren arabera garapenaren abantaila guztiak izango genituzke, desabantailak izan gabe–. Garapen jasangarriak bi kontzeptu bateraezin uztartzen ditu. Izan ere, garapenak (garapen ekonomiko bezala ulertua, eta ez du zergatik giza garapen izan) hondakin geroz eta gehiago dakartzatza ezinbestean. (...) Jende gehienak ez ditu printzipio fisiko eta biologiko oinarritzkoenak ezagutzen eta horregatik hitz egiten dute gure agintariekin modu arrakastatsuan eta kontrako iritzirik gabe garapen jasangarriaz, hots, hazkunde jasangarriaz (!), gure Lurra sistema mugatua den arren. Albert Jacquard-ek diosku hazkunde iraunkorra esponentziala dela. Hazkunde motela izanda ere, urtean ehuneko 2 esaterako, epe ertainean izugarritzko eztanda eragingo du: hogeita hamabost urtetan bi aldiz handiagoa da hazkunde hori, mende batean zortzi aldiz, hirurogeita lau aldiz handiagoa bi mendetan!

(...)

Zer egin dezakegu guk? Adibidez:

Batez ere inguruko produktuak erosi eta urruti produzitutakoak saihestu (...)

Saltoki handietan erostea baztertu. (...)

Ahal denetan iturriko ura edan. (...)

Energia kontsumoa murriztu. (...)

Jertse lodi eta erosoak erabili, eta neguan bero-gailua gutxitu. (...)

Aparailu elektrikoak gutxitu eta ez utzi *standby* egoeran. (...)

Aire giroturik gabe freskatzen saiatu. (...)

Garraio publikoa eta desplazamendu ez agresiboak (bizikleta, oinez ibiltzea) erabili. (...)

Hegazkinean bidaiatzea ahal den neurrian saihestu.

Haragi gutxiago jan. Idi kilo bat ekoizteak autoan 60 kilometro egiteak bezainbeste kutsatzen du atmosfera. (...)

Norberak bere buruarekin gogoeta egin, irakurri, pertsona errealekin harremanak izan, telebista gutxi edo batere ez ikusi. (...)

Bere sinpletasunean, inguruko errealitatea baloratzen ikasi. (...)

Aisi artifizialak eta teknologikoegiak, askotan alienatu egiten gaituztenak, baztertu. (...)

Bakoitzaren zaletasunen arabera elkarteekin kolaboratu.

Espiritualtasuna garatu.

(...)

Zer egin dezake administrazioak? Adibidez:

Zerga-pizgarrien, muga-zergen, arauen... bidez jardunak inguruan egin daitezela bultzatu, deslokalizazioa ez emateko.

Desplazamenduen gehiengo abiadurak gutxitu. (...)

Garraio motorizatuaren gaitasuna txikitu (aparkaleku gutxiago hiri barnean, errail gutxiago errepidetan...).

Mugikortasun indibidualaren ordezk mugikortasun kolektiboa hobesteko neurriak jarri. (...)

Tren eta itsasontzi bidezko garraioa sustatu, errepidekoa murrizteko.

Zerga ekologikoak aplikatu. (...)

Desindustrializazio mailakatua bideratu, dimentsio txikiagoko eta inguruko enpresen onerako.

Enbalajea hasieratik gutxitu. (...)

Energia berriztagarriak indartu. (...)

Nekazaritza ekologikoa sustatu.

Deshazkundearen alde dagoeneko dauden legeak aplikatu. (...)

Zerbitzu publikoen finantzazioa eta funtzionamendua beste era batera ulertu (osasuna, hezkuntza, ikerketa, ura, energia, eta abar).

Zerga altuei muga ezarri. (...)

Denentzako gutxiengo diru-sarrerara batzuk bermatu.

* *Nicolas Ridoux-ek idatziriko La décroissance pour tous liburutik (Menos es más gaztelaniazko bertsioan).*

LARRUN pentsamendu aldizkaria

ARGIArekin batera banatzen da

Zuzendaria: Xabier Letona

Jabea: Komunikazio Biziagoa S.A.L.

Helbidea: Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160

Lasarte-Oria **Posta Elektronikoa:**

larrun@argia.com **Telefona:** 943 37 15 45

Inprimategia: Antza S.A.L. **Informatika:** ASP SCOOP.

(ARGIAko 2.241. zenbakiarekin banatua, 2010eko abuztuaren 1ean)